



DANI BLANCO

Bertso txapelketari kritika

M A H A I - I N G U R U A

■ Ion Ansa ■ Oier Araolaza ■ Fredi Paia

Sistema legitimatzen duen joko absurdoa?

Otsailaren 26an hasi eta martxoaren 12ra arte, Bertsolamintza IV *Inertziak erantzi, garena jantzi* jardunaldiak antolatu ditu Euskal Herriko Bertsozale Elkartek. Egunerokotasunari herdoila kentzen arituko dira hamar hizlari, hainbat alorretan (umoreaz, sortze prozesuaz, gai-jartzailatzaz...). Txapelketako inertziez eta honek bertsolaritzaren sisteman duen eraginaz jardungo dira hauetako hiru, eta LARRUNen elkartu ditugu. Bertsolaritzari buruzko beste ikuspegi bat duzu bertan, dena baita nondik begiratzen den. Erantzuteko aukera duzu bai argia.com webgunean, edo Bertsolamintzako hitzaldietan parte hartuz (ikus egitaraua kontrazalean).

■ Testua eta argazkiak: Estitxu Eizagirre

Azter dezagun txapelketa sistemaren barruan. Nola deskribatuko zenukete bertsolaritzaren sistema eta horren barruan non kokatzen da txapelketa? Zein funtzio betetzen ditu?

ION ANSA. Oraindik egiteko dago bertsolaritzaren sistemaren azterketa. Eta beharrezkoa da egitea, jakiteko zer egiten ari garen eta zer egoeretan gauden. Nire ustez, sistema ideia batean oinarritzen da: ona eta txarraren arteko banaketan. Ez bertso ona eta txarra, baizik bertsolari ona eta bertsolari txarra. Horiek bi mutur dira eta ez da hizkera hori erabiltzen, baina hierarkizazio bat egiten da eta horren ondorioz dator egitura oso bat. Organo desberdinak daude kontzeptu horren inguruan mugitzen direnak eta azkenean iristen gara “elitea-

ren” sistema batera, eta hori kokatzen da bertsogintzaren erdigunean: hori da erreferentzia, hori da eragina... Txapelketaren funtzioa zein den? Sistema guztien helburua da betikotzea, eta txapelketak besteak beste, funtzio hori betetzen du. Sistema elikatu eta indartu egiten du eta sistemaren legitimitatea bermatzen du.

“Onak eta txarrak” esan duzu. Hori nork sortzen du? Publikoak, plazak? Zenbat eta saio gehiago egin, hobe zarenaren seinale?

I. ANSA. Bertsolaritzan bada gauza bat, beste espresio artistikoetan nekez aurkitzen dena, eta da txapelketari aitortzen zaion zilegitasuna hierarkia hori osatzeko. Txapelketak ematen du legitimotasun hori, “labela”.



Oier Araolazak, Fredi Paiak eta Ion Ansak txapelketa izango dute hizpide Bertsolamintzan.

FREDI PAIA. Gaur egun ari da lortzen hori gehien. Bertsozaletasunaz egindako azken inkesta soziologikoan (2006) ikusi genuen: jendea galdetu “nor da zuretzat bertsolaririk onena?” eta erantzunetan 100 izen agertu ziren. Hori da txapelketak orain arte apurtu ezin izan duen errealitatea. Gaur egun ari da lortzen aniztasun hori apurtzea, besteak beste transmisio ereduaren bidez. Bertso eskola batzuetan gazteek argi ikusten dute nagusi batzuk txapelketetara doazela eta beste batzuk ez (eta batzuek hautua egiten dute txapelketara ez doazenen bidea hartzeko), baina sistemak ez du aukera hori ematen. Ezkutatu egiten du bigarren errealitate hori. Sasoi batean *Hitzetik*

Hortzeran Goierriko bertsolarien saioak ematen zizkiguten, eta esaten zenuen “hor ez doa inor txapelketara, baina saioak egiten dituzte eta begira zer ondo pasatzen duten”. Hori dena fokutik* atera dugu.

Sistemara eta txapelketaren zereginera itzuliz...

OIER ARAOLAZA. Nik dantzaren mundutik bizi dut txapelketen sistema, eta agian esango ditudan gauza batzuk ez dira ongi egokituko bertsolaritzara. Funtzioez hitz egiten dugunean bi gauza bereizi behar ditugu: bata da zer funtzio bilatzen dugun edo espero dugun txapelketa

* Fokua: 2006. urtean Bertsozale Elkarteak egin zuen gogoetan atera zen kontzeptua. Zakar esanda, adierazten du bertsolaritza esparru zabalaren barruan "ikusten den" eremua. Medioetan bisibile dena, ikergaia, arreta bideratzen duena, mugimenduaren langaia... Fokutik kanpo egiten den bertsogintza ilunpean dago, badenik ere ez da ikusten.

bat martxan jartzerakoan, alegia, zein diren gure espektatibak, eta beste bat da praktikan, funtzio horiekin batera, edo horien kontra, edo horiek ordezkatzuz, zer beste funtzio betetzen dituen. Niri bigarren alde hau interesatzen zait, zeren gehienetan ez dira aitortzen funtzio batzuk, gero *de facto* funtzionatzen dutenak. Noski, txapelketa bat antolatzen dugunean gogoan ditugun funtzioak dira onuragarri izango direnak, eta neurri batean kaltegarri gertatu daitezkeenak edo "albo kalte" izendatu daitezkeenak ez ditugu aipatzen. Baina gero gertatzen dira. Eta momentu eta sektore batzuetan, esaterako dantzan, pisu handiagoa dute disfunzioek, funtzioek baino. Eta orduan kolokan jartzen da txapelketa bera.

Txapelketak eredu sortzaile bezala daukan indarra aztertzea interesatzen zait. Hori maila desberdinetan ematen da: batetik, txapelketa antolatzeak berak esan nahi du onartzen dela eredu batzuk izan behar direla. Eta gainera eredu horiek hierarkikoki antolatu daitezkeela. Beraz, badaudela bertsotan edo dantzan egite-

ko modu batzuk hobeak, beste batzuk baino. Hau da, txapelketa antolatzen dugun momentuan onartzen dugu egin daitekeela sailkapen bat. Badaudela hobeak eta okerragoak. Eta bestetik, behin txapelketa martxan jartzen denean, eredu hori zein den edo zeintzuk diren oso garbi adierazten du txapelketak. Eta eredu horiek zehaztearekin batera, aldi berean hedatzen ditu automatikoki: izugarritzko indarra dauka txapelketak eredu horiek erabat zabaltzeko, hedatzeko. Alde horretatik, aniztasunaren kontrako mekanismo oso indartsua da txapelketa. Horregatik iruditzen zait kaltegarria dela momentu eta sistema askotan.

F. PAIA. Nik lehenengo azpimarratuko nuke txapelketa ez duela bertsolariak sortu. Bertsolarien esku egon denean bere burua lehiatzea, beste formula bat erabili izan du historikoki: desafioa jotzea. Zer ezberdintasun dago? Desafioan protagonistak bi bertsolariak dira. Txapelketan difuminatu egiten dira bertsolariak eta egiturak berak hartzen du indarra, txapelketak.

M a h a i k i d e a k

■ ION ANSA



1977an Oiartzunen sortu bazen ere, Oreretako Xenpelar Bertso Eskolan eman zituen bere lehen urratsak bertso munduan duela 17 urte. Geroztik, bat-bateko sari-riketetako epaile izan ezik, bertsolaritzaren baitan dau- den gainerako lan guztietan aritu da: bertsotan, gai jartzen, *Hitzetik Hortzera* programa egiten, txapelketako saioen kritikak idazten...

■ OIER ARAOLAZA



38 urteko eibartarra. Pasio du dantza, eta ofizioa ere dantzaren inguruan antolatzen sailatu da azken urteotan. Kazetaritzan eta Antropologian lizentziatua, Artearen Historian eskuratu berri du "ikertzaile nahikotasuna" soka-dantzaren inguruko ikerketa lanari esker. Azken urteotan dantzan.com elkartean komunikazio, kudeaketa eta formazio lanetan dihardu.

Sistema noiz sortzen da? Arte adierazpen oro lez, norbanako jarduera den bertsogintza estrukturaliki interes kolektiboetarako erabili nahi denean. Txapelketak 30eko hamarkadan sortu zituzten bertsolariak ustiatu nahi zituzten elkarte batzuek: Euskaltzaindiak eta besteek, hizkuntza politikarekin lotutako funtzioetarako (ez da kasualitatea hamarkada horretan sortzea, abertzaletasuna borborrean dagoen sasoiari). Bertsolaritzatik kanpokoak diren agenteek sortzen dituzte txapelketak. 1986an bertsolaritzak bere burua antolatu behar izan zuen, zergatik? Bertsolaria jada beste batzuen eskuetan zegoelako. Eta kanpoko erakundeek erabakitzen zutelako nola neurtuko ziren, nor izango zen ona eta nor txarra.

Sistema bat eraiki behar baduzu bertsolaritzaren inguruan, bertsolarien onarpena ezin bestekoa da: Hori ziurtatzeko tresna da txapelketa. Euskaltzaindiak oso ondo erabili zuen bere garaian. Bertsolaria bezalako fenomeno baten inguruan (nahiko kontrolagaitza, leku askotan dagoena, bakoitza bere ideia eta egite-

“Sistema ideia batean oinarritzen da: ona eta txarraren arteko banaketan.

Ez bertso ona eta txarra, baizik bertsolari ona eta bertsolari txarra.

Txapelketaren funtzioa zein den?

Sistema elikatu eta indartu egiten du eta sistemaren legitimitatea bermatzen du”

ION ANSA

ko moduarekin...) sortzera zihoan sistema horri laguntzeko “tranpa” izan zen txapelketa, neurri handi batean. Hor elkarjoko bat dagoelako, batak besteari itzala ematen dio, batak bestea gabe ezin du bizi. Gaur ere Elkartearen zentralizazioa justifikatzeko tresna da txapelketa, esateko: “Bai, nik hartzen dut arte honentzako laguntzaren %99a, baina sortzailearen erabateko onarpena daukat hau egiteko”. Hori gabe ezinezkoa da, bertsolariak zilegitzen ez badu, Elkartek ez dauka zentzurik ez indarrik. Eta bertsolariak bizirauteko txapelketara joan behar duenez, ez dago Elkartea zilegitu gabe bizitzeko modurik, txapelketari esker.

Gero dago non jartzen den fokua. Edozein bertso ekimenek urtean 200 saio dituenean eta Elkartek ez duenean ardurarik hartzen saio horietako bakar bat ere grabatzeko, hor ikusten da sistema eta ekosistema. Fokua non jartzen du sistemak? Bera zilegitzen duen sektorean. Zeren fokutik kanpoko sektoreak, oso zabala denak (bat-batean agertzen zaigu bertsolari bat Zuberoan, bat-batean agertzen da jende bat elkartu eta lan egiten duena Barakaldon...), horrek ez du zilegitzen Elkartea eta beraz ez dira azpimarratu beharreko faktoreak.

I. ANSA. Fokuaren ideiarekin guztiz ados nago, kontua da, askoz gehiago dela fokutik kanpo geratzen dena, fokua barruan dagoena baino.

■ FREDI PAIA



1981, Algorta, Getxo. Bertsolari, musikari, etnografo eta iritzigilea. Euskal kulturaren biltze eta ikerketa lanean eman ditu azken urteak Labayru ikastegian. Hainbat bertso ekimenetan aritu da, sorreratik: Txapel Bete Bertso, Zaharrak Berri Tour, Bertso Tranpak, Hudaltzainak, Payadoreak... Algortako Bertsolari Eskolako kide da.

“Sistema bat eraiki behar baduzu bertsolaritzaren inguruan, bertsolarien onarpena ezinbestekoa da: hori ziurtatzeko tresna da txapelketa. Euskaltzaindiak oso ondo erabili zuen bere garaian, eta onarpen hori galdu zuenean bertsolaritza bere burua antolatzaera pasatu zen. Gaur ere Elkartearen zentralizazioa justifikatzeko tresna da txapelketa”

FREDI PAIA

Sistema honekin hau dena fokutik kanpo utzi beharrean, goazen berdintzera. Noski, horrek eskatzen du “ona” eta “txarra”ren ideia haustea. Kontsideratu nahi badugu bertsolaritza artistikoki zilegi den adierazpide bezala, ezin dugu hitz egin termino hauetan, “onenak” eta “txarrenak”. Ezin dugu hitz egin ereduez. Musikariek ez dute ereduez hitz egiten, eraginez hitz egiten dute. Bertsolaritza lotzen ari gara bertsogintzarekin eta sormenarekin zerikusirik ez daukaten ezaugarriekin: txapelketak, merkatuak, audientziak... hori dena oinarritzen da on eta txarraren ideian. Kontua da ideia hori hausten duzunean moztarrogabetzen duzula ideia horren atzean egituratzen den guztia, gure barruan ere badagoen hori. Zeren ideologia transbertsala da, geronek barneratzen dugu eta geronek sortzerako prozesuan ere kontuan hartzen dugu, zilegitasuna ematen diogu etengabe. Niretzat klabea pentsamendu hori haustea da.

O. ARAOLAZA. Bertsolaritza ari garenean zertaz ari gara? Komunikazioaz? Sorkuntza artistikoaz? Zeren komunikazioaz ari bagara “on” horren balorazioa zuzen-zuzenean testuinguruarekin eta momentuarekin lotutako gauza bat da: “Ona”

da momentu bakoitzean komunikazio hori funtzionarazten duena. Baina bertsolari bera testuinguru eta momentu desberdinetan izan daiteke oso ona edo oso txarra. Beraz, komunikazioaz ari bagara ezin gaitzke on eta txar sailkapenetara jolastu. Sorkuntza artistikoaz ari bagara, ufi! ba oraindik gutxiago! Hain zuzen ere, sorkuntza artistikoan zenbat eta desberdinagoa edo haus-turarako joera handiagokoa izan, orduan eta interesgarriagoa iruditzen zaigu, ez dakit “ona-goa”. Txapelketak oinarrian duena da onarpena, egon daitezkeela onak eta txarrak eta gainera antolatu egingo ditugula lehenengotik zortzigarrena! Eta hori da jardueraren oinarritzko funtzioen kontrako urrats bat.

Fredik aipatzen du ekonomikoki bideragarri izatea dela txapelketa antolatzeko funtzio nagusietako bat une honetan. Baina nik uste dut badela beste bat, oso garrantzitsua: mediatikoki ikusaraztea. Ezin dugu ahaztu erabat gizarte mediatikoan bizi garela, eta gauzen arrakasta ere presentzia mediatikoaren arabera neurtzen dela. Eta txapelketak ematen dio beste ezerk emango ez liokeen presentzia mediatikoa eta horren ondoko soka guztia. Ekosistema horretan aipatzen dituzuen bestelako ekintza guztiak ere txapelketak sortzen duen olatu mediatiko horri esker artikulatzen eta biziberritzen dira. Zalantza da ea mediatikoki arrakasta hori izatea den helburu bat edo ez. Eta baldin bada, ba horretarako tresna oso egokia da txapelketa.

F. PAIA. Eta ze aukera kostu daukan horrek, gauza bat egiten duzun bakoitzean beste zerbaitez lortzen ari baitzara. Oraindik ere ikusten dut txapelketatik kanpora bizitza asko dagoela. Ez dudana oso garbi ikusten da eredu honekin jarraituz gero hamabost urte barru bizitza asko egongo den bertsolaritzan txapelketatik kanpo. Sortzen ari garen belaunaldia “txapelketa ala hil” logikarekin dabilela iruditzen zait, gainera txapelketa erabat ikuspegi darwinistatik: txapelketarako balio badut bertsotarako balio dut eta bestela ez.

Gai honekin amaitzeko, eskematxo bat: gure txapelketaren indarra da gure antolaketa siste-

maren ondorio. Eta horren ondorio da sortzen ari garen bertsogintza ere. Bertsozale Elkarteak izango ez balitz kontzentrazio bat (egitura zentralizatu horretara bideratzen da finantziario ia guztia), gure grabitate zentroa bertso eskoletan balego, dantza taldeetan bezala, txapelketak beste pisu bat izango luke eta beste era batera biziko genuke. Zergatik? Ez litzatekeelako hain hil ala bizikoa, parte hartu edo ez baliabideak izango genituzkeelako pisuzko alternatibak sortzeko. Bertsolaritzan baliabideen kontzentrazioa oso handia da, eta txapelketaren inguruko sistematik kanpo ekosistema bizigarri gutxi dago. Transmisioan oso lan ona egiten ari gara, bertso-lari mordo bat sortzen, eta eskaintzen diogun etorkizuna inbutu bat da. Helduen txapelketan leku bat ez duten bertsolariek non kokatzen dute beren burua? Bada alternatiba bat, autogestioa, azken urteetan ugaritu dena eta funtzionatzen duena ("Txapel bete bertso" eta abar). Norberak bere ekimenari heltzea.

O. ARAOLAZA. Bitxia egiten zait bertsolaritza eremutik dantzaren antolaketa eredutzat hartzea, dantza munduan azken 30 urteetan benetan bizi dugun drama geure burua antolatzeko gaitasun eza denean. Azken 10-15 urteetan dantzatik inbidiaz eta eredu bezala begiratu izan zaio bertso munduari, duen barne kohesioagatik eta sistema bat antolatzeko izan duen gaitasunagatik.

F. PAIA. Proposatzen dudana ez da beste puntara pasatzea, gure egitura nazionala desagerarazi eta eskualdeetako antolaketara bakarrik pasatzea. Baina uste dut beste muturrera jo dugula. Esaten dudana da oreka bat bilatu behar dugula. Zergatik? Bada gauzak txarto badoaz egun batean, motorra eskualdeak direlako. Aniztasuna hor dago, gure proiektua gizartearen aurrean askoz erakargarriago bihurtuko lukeen aniztasuna.

Txapelketak eredu bat besteen gainetik jartzen duela eta indar handiz hedatzen duela esan duzue. Ereduak beharrezkoak dira?

“Txapelketa antolatzen dugun momentuan onartzen dugu egin daitekeela sailkapen bat. Badaudela hobeak eta okerragoak. Eta bestetik, behin txapelketa martxan jartzen denean, eredu hori zein den edo zeintzuk diren oso garbi adierazten du txapelketak. Eta eredu horiek zehaztearekin batera, aldi berean hedatzen ditu automatikoki. Alde horretatik, aniztasunaren kontrako mekanismo oso indartsua da txapelketa. Horregatik iruditzen zait kaltegarria dela momentu eta sistema askotan”

OIER ARAOLAZA


F. PAIA. Oierrek esan duen bezala, aniztasunaren kontrakoa da txapelketa. Ereduak behar ditugu, arazoa da Eredua daukagula. Txapelketa irabazten duenaren eredu. Eta ondoren txapelketak eredu horretara moldatzen dira: gaien formulazioa...

I. ANSA. Ni ere duen kontrakoa naiz. Eredurik ez da behar eta ez da sana ere duak edukitzea. Nik azentua norberarengan jartzen dut. Sortzea oso prozesu pertsonala da eta gauza bat da eraginak edukitzea, elikatzea, elkar eragitea... eta beste gauza bat da eredu jarraitzea. Nik uste ideologia aldaketan oinarrietako bat horixe dela, eredurik behar ez izatea.

O. ARAOLAZA. Nik zalantza daukat. Ez naiz ausartzen esatera behar ez ditugunik, uste dut garrantzitsuak direla, askotan nork bere bidea alde batera edo bestera bideratu ahal izateko,

“**E** reduen arteko harremana osagarria izan behar da, kolore desberdinak eskainiz. Eta ez elkarren arteko antolaketa hierarkikoa”

OIER ARAOLAZA



CLAUDIO ANDRÉS

inspiratzeko... horiek eraginak diren, edo ereduak diren? Ez naiz ausartzen esatera. Baina ereduen arteko harremana osagarria izan behar da, kolore desberdinak eskainiz. Eta ez elkarren arteko antolaketa hierarkiko bat.

I. ANSA. Gogorra iruditzen zait norberaren sortzeko gaitasunari uko egitea beste eredu bati jarraitzeko. Nik uste imitazioan sartzen garela, eta norberaren ukazioa dela hori.

O. ARAOLAZA. Baina sorkuntza prozesurako trebakuntzan, behar beharrezkoak dira ereduak, non haiek imitatuz jartzen dituzun puntuan zure teknika eta sorkuntzarako erremintak.

F. PAIA. Ikasketa prozesua imitaziozkoa da. Kontua da ereduak behar ditugula, pluralean. Zer gertatzen da? Gaur egun gero eta gehiago goazela Eredura. Gure belaunaldikook askoz trokelekoagoak gara gure aurrekoak baino. Errimari begiratuta eta abar, molde bateko jendea gara, eredu batzuei jarraitu diegulako. Baina nik uste prozesu hori ere inbutuan doala. Belaunaldi batekoak bai ikusten ditudala Egañaren imitatzaille, eta orain Lujanbiori gertatuko zaio gauza bera. Gure haurtzaroan ia bi urtero txapelduna aldatzen zenez, ereduak hor zeuden. Hamasei urtez eredu bat txapeldun izatearen ondorioek izango dute zerikusia.

Haurrek imitatuz ikasten dute. Gelditzen zaigun lana da, eredu bakoitzetik ona den hori identifikatzea. Adibidez, Mañukortari buruz hitz egingo nuke: nola izan daiteke sasoi batean Euskal Herrian saio gehien egiten zuen pertsona adituentzat “kaka zahar bat”? Publikoari txoropito deitzen ari gatzazkio aurpegira. Adituen ikuspegi hori da gure ikasleei buruan sartzen zaiena eta sistematik irradiatzen den ideologiak dioena: Mañukortak ez du batere balio eredu izateko. Baina aldi berean, herriak Mañukorta nahi zuen.

I. ANSA. Ikasketa prozesua imitaziozkoa dela diogunean ez dakit gauza beraz ari garen: gauza bat da ikasitakoa nola ikasi izan dugun, eta beste gauza bat da “norberetik” esaten den hori egiten ikastea. Horrek ezin du imitaziozkoa izan. Horrek ez du esan nahi erreferentziarik ez dagoenik eta hutsetik abiatzen garenik.

Txapelketari kritika egiten zaionean, galdera sortzen da beste era bateko txapelketak kalte horiek gaingituko ote lituzkeen. Txapelketa onik/justurik egin daiteke?

I. ANSA. Txapelketa ona da, bere helburuak betetzen baditu. Gaur egun dagoena ikaragarri ona da egungo sistemarentzat. Ultraperfekzionaturik dagoen gauza bat da. Sustrai Colinak esan zuen bezala, BECeko finala “jubilatuko modukoa da, urtero bat erortzen da” eta berri bat sartzen da, eta lortu dugu hori justifikatzea eta hori ontzat ematea, hain zuzen ere inoiz baino bertsolari gehiago eta mugimendu potenteagoa dagoen garaian. Beraz, oso ona izan behar du. Txapelketa justurik egin daitekeen? Ezin da.

Eta bertsoa epaitzea posible da? Ona eta txarra definitzea eta puntutan neurtzea?

I. ANSA. Bada bai, ikusi besterik ez dago, etengabe neurtzen da bertsoa puntutan. Bertso ona eta txarra neurtu daiteke, “ona” eta “txarra” izendatzen hasten garen momentutik. Baina zer balio dauka horrek? Kontua da neurtu nahi dugun edo ez. Azken batean, honen atzean dagoen galdera da zer bertsogintza eraiki nahi dugun, eta bertsogintza horien oinarriak zein izango diren. Oraingo sistema nahi badugu, segi dezagun txapelketarekin zeren oso ondo egiten du bere lana. Orain, bertsolaritza lan artistiko bezala indartu nahi badugu eta kulturalki herri mugimenduaren bidean txertatu, nik uste dut desbideratu xamar gabiltzala. Ideologikoki kuestionatu behar dugu sistemaren egitura bera.

F. PAIA. Baina zuk aipatutako “hau da ona eta hau da txarra” izendatzeko lan hori ez da egiten! Txapelketak egiten duena da bertsolari ona eta txarra bereizi, ez bertso ona eta txarra. Zeren ikusita gaude bertso txarrak bertsolari “onaren” ahotik asko puntuatzen, eta bertso onak bertsolari “txarraren” ahotik gutxi puntuatzen. Gainera debatea alferrekoa da, kontua

da egin egingo dela. Baina ezin diegu epaileei esan: “Zuek lasai, ze beti egingo duzue txarto”. Epaileen profesionalizazioaren alderdia erabat deskuidatu da, epaileak izan behar luke bertso munduan pertsona ezaguna, bere jakintza eta autoritateagatik. Hori da txapelketak berme apur bat emateko baldintza bakarra. Baina bertsoan egiten duguna guztiz kontrakoa da: abokatu izatera heldu ez dena epaile. Eta epaile izan behar du abokaturik onenak. Izan behar du pertsona bat esango didana “Fred, 5!”, “baina kristoren bertsoa da!”, “5! ze hau eta hau eta hau egin duzu”. Eta konbentzitu ala ez esango duzu: “asko daki”.

I. ANSA. Baina epaileak ez daude horretarako.

F. PAIA. Epaileak egin behar du hori! Edozein justizia sistema oinarritzen da epailearen autoritatean.

I. ANSA. Esaten ari zara txapelketa justiziaren arabera antolatu behar dela, eta ez da hori kontua.

F. PAIA. Baina justiziak izan behar luke helburu! Meloi hau irentsi behar badugu, ahalegindu gaitezten meloia ahalik eta kalitate onenekoa izan dadin. Epailatza deskuidatu dugu guztiz! Zenbat ordu sartzen dituzte bertsolariek urtean eta zenbat epaileek?

O. ARAOLAZA. Nik ez dut sinesten ekintza komunikatibo edo artistiko bat sailkapen batean antolatu dezakegunik, kirolean bezala. Alfonso Sastrekin erabat ados nago, artearen eta kulturaren alorrean sariak ematea interesgarria da. Ondo ari dena saritu beharra daukagu. Eta hori identifikatzen dugu, nor ari den ondo momentu batean. Baina sariak dira gauza bat eta lehiaketak beste bat. Eta sortzaile desberdinak zerrenda batean antolatzea “hau lehen, hau bigarrena eta hau hirugarrena”, “hau hobe da hau baino”? Horrek ez dauka ez buru ez belarri, ez komunikazioaren ikuspuntutik, ez artearen ikuspuntutik. Eta nik bertsogintzari

“Sistema onenen eta gutxiengo baten inguruan oinarritzen da. Sistema aldatuko balitz, ez genuke hortik kanpo ezer sortzen aritu beharko. Elkartetik kanpo ari dira gauzak sortzen, eta gero eta gehiago sortuko dira”

ION ANSA

zerbait eskatzen badiot da komunikazioa eta sorkuntza. Besterik eman dezakeen? Ez dakit, akaso epaileek besterik identifikatzen dute eta horregatik dira gai hori epaitzeko. Baina komunikazioa eta sorkuntza ezin dira modu horretara epaitu. Komunikazioan, txapelketako finalean 14.000 lagun baldin badaude, horietako bakoitzak bere izate eta testuinguruaren arabera jasoko du eta interpretatuko du mezua, bakoitzarengan desberdin funtzionatzen du mezu berak. Beraz, ezin ditzakegu zenbaki batekin berdindu! Artearen ikuspuntutik, egiten dira, “azken mende honetako artelanik onenak”, eta gainera sailkatzen dizkizute, baina horiek interes mediatiko hutsa dute, egunkaria saltzeko egiten dira.

I. ANSA. Baina hori da koska, zertarako egiten da? Zer legitimatzeko?

O. ARAOLAZA. Egin dezagun lehiaketa bat Bach, Mozart eta Vivaldiren artean. Eta aurkituko ditugu epaitzeko irizpideak, e! Batek berehala esango du, “sinfonia luzeenak egin zituenak 2 puntu gehiago, eta nota gehiago sartu dituenak...” nahi duzun guztia! Baina horrek badauka zentzurik?

Sailkapen hori zertarako egiten den atera duzue mahaira. Azter ditzagun txapelketa egiteko arrazoiak.

I. ANSA. Esan dugu txapelketaren funtzioa sistema legitimatzea dela, eta horretarako egiten da. Berez joko absurdo bat dena (eta niri joko absurdoak gustatzen zaizkit eta txapelketa gustatzen zait zentzu horretan), legitimatzeko erabiltzen da. Arazoa da hori moztarotzen dugunean eta ematen diogunean berez ez duen lotura bat: eskatzen diogunean epaileari arrazoitzea zergatik den bertsorori hori bost. Hori ez da epaile baten funtzioa. Ezin diozu epaile bati zure bertsokera ona edo txarra den erabakitze-ko eskumena eman.

F. PAIA. Baina ematen zaio jada, *de facto*!

I. ANSA. Zerorri ari zara eskumena ematen, zure gainetik epaitzeko eskatzen diozun momentutik.

F. PAIA. Joko absurdo honetan sartu behar badugu, epaitu behar bada, izan dadila autoritatea daukan inor. Gainera publikoa ez doa bertsolariak ikustera, epaileak ikustera doa. Zeren zuk jartzen badituzu finaleko zortzi bertsolari horiek beste edozein egunetan BECen, ez da jendearen %10a joango. Orduan, nor ikustera doaz? Epaileak!

Absurdoa dela diozue, baina bertsogintza-
ren ikuspegitik hala bada, orduan zergatik
doaz bertsolariak txapelketara? Ber-
tsolariak uko egingo baliote ez legoke
txapelketarik.

F. PAIA. Bi bide bakarrik daudelako: edo txapelketa edo autogestioa. Ondorioa da askok egiten duguna, aste barruan lan egitea asteburutan lan egin ahal izateko. Baina horrek hil egiten zaitu. Bertsolaritzaz beste era batera bizitzeko asmorik baduzu, txapelketa da aukera bakarra. Dantzan ez da horrela, dantza txapelketa bat antolatzen da, baina gero beste hiru dantza eskola elkartzen dira eta lortu dezakete aurrekoaren adina-ko pisua duen beste txapelketa bat edo beste mugimendu bat antolatzea. Beste kontrapisu batzuk badirelako. Baina gaur Elkartek txapel-

keta bat antolatzen badu, ez dago Euskal Herrian bertsoarekin lotutako beste ezer horren itzalaren laurdena duen alternatiba bat eraiki dezakeenik, baliabideak banatzeko moduaren ondorioz. Eta gainera autogestioari zer diskurtso egiten zaio? “Horiek dira txapelketan ezer lortu ezin eta horrela saioak egin nahi dituztenak”. Jasotzen den mezua mespretxua eta egurra dira. LARRUN honetaz esango duten bezala “Fredi Bizkaiko txapeldun balitz ez litzateke hor egongo!”, bada egongo nintzateke gauza bera esaten, gainera txapelaren pisuarekin.

Zuk esandakoaren arabera, pentsa daiteke bertsotatik bizi nahi dutenek ez dutela beste aukerarik. Hor sartuko lirateke zenbat bertsolari, Euskal Herri osoko 15-20? Baina bakarrik Gipuzkoako Txapelketan 70 bertsolarik ematen dute izena.

F. PAIA. Hamabost horietan sartzeko itxaropenarekin.

I. ANSA. Hori da kapitalismoaren ideia: Izorratuta biziko zara beti baina beti izango duzu esperantza txiki bat gora iristeko. Ez da hori bakarrik, txapelketa bera saio bat da eta horretara joan izan gara, saio bat gehiago egitera. Eta beste motibo bat da korronteari jarraitzea.

O. ARAOLAZA. Eta lehia gustatzen zaigulako, gizarte honetako balio bezala: “Ni gehiago hi baino”. Ez dut uste txapelketara doazen guztiak irabazteko itxaropenarekin doazenik. Baina bai hamazazpigarren geratzera hamazortzigarren baino. Hori jada bada motibazio fua bat. Orain arte txapelketaren kontrako motiboez aritu naiz, baina txapelketa antolatzeko arrazoiak asko daude, eta horientatik antolatzen da: ekonomikoa funtsezkoa da. Mediatikoa, maila guztietan: ez bakarrik txapelketak dirauen bitartean, baizik eta horrek bertsogintza osoari ematen dion bultzadagatik. Eta bada beste funtzio bat: tranpolina. Jarduera horretan aritu nahi duenak lehenengo bere burua ezagutzera eman behar du, eta horretarako oso

ongi funtzionatzen du txapelketak. Ondoei, dantza munduan txapelketa irabazi dutenek bakarrik lortu dute momentu zehatz batean beren burua ezagutzera ematea. Eta ezagutzen zaituztenean deitu egiten zaituzte, bai emanaldiak egiteko eta baita beste hainbat proiektutarako ere, eta horrek diru iturri bat ekartzen badizu, dedikazio gehiago eskaini diezaiokezu. Dantzaren alorrean, txapelketa izan da urte askoan egon den tranpolin bakarra. Froga bat egingo dugu: ea, bota dantzarien izenak.

Kimetz Larrañaga...

F. PAIA. Jon Maia, Edu Muruamendiaraz...

O. ARAOLAZA. Hiruak txapelketatik ateratakoak. Dantza txapelketetan parte hartzea askoz murriztagoa izan da. Kopuru bat ematearren, mila dantzari badaude sasoiaren, 10-15 bakarrik aurkezten dira. Pentsatzekoa da beste mila horien artean egongo direla on askoak, baina horiek ez dute aukerarik izan euren burua ezagutzera emateko eta beren bidea jarduera horretan egiteko, ez dutelako txapelketan parte hartzea erabaki.

Gaur egun zer beste tranpolin dago dantzaz?

O. ARAOLAZA. Ez dago. Horregatik jokatzen du txapelketak oso funtzio garrantzitsua.

F. PAIA. Dantzan bada ezberdintasun bat, bertso eskolekin lotua: talde izaera. Nahiz eta dantza txapelketara ez joan, dinamika bat ziurtatuta daukazu eta zure taldearen esku dago dinamika hori. Bertso eskoletan egiten den lana antzerakoa da, horregatik ematen diogu garrantzia bertsolari horien artean koadrilak sortzeari. Izan daitezela 3-4-5 laguneko taldeak, gero porrot pertsonalak leundu eta sentitzeko “hau guztia daukat hemen”. Baina uste dut jende asko txapelketara joaten dela, bakardadean bizi duelako bertsolaritza. Ez du aurkitzen talde egitura bat bere inguruan bere beharrianak asetzen ditue-

na, urtean hainbat saio emango dizkiona. Adibidez gurean, badakigu asteartetan Algortako Aju-ria tabernara bazoaz, han bertsotan egitea bada-goela. Eta jende batentzat hori nahikoa da, asteen saio bat egitea. Hori ere ez badaukazu...

O. ARAOLAZA. Irribarrea ateratzen zait, zeren zuk negatibotzat dituzun ezaugarri horiek nik positibotzat izan ditut, eta alderantziz. Zuretzat bertsolaritzaren banakotasuna negatiboa da, eta niretzat beti izan da positiboa. Talde batean oso erritmo eta intentsitate ezberdinak daude, baina taldeko lana eskatzen du halaberrez dantzak, eta ez gara gai izan aurrera egiteko. Eta bertsolaritzari begira beti pentsatu dut “noski, hauek bakarka dabilenez, batek norberaren apustua egiten du eta aurrera doa, ez dio axola atzekoak berarekin ez etortzeak”. Eta dantzan atzekorik gabe ez zoaz inora.

F. PAIA. Konforme horretan. Baina badauka beste alde hori ere: bertsolaritza utzi duen jende gehienak utzi du bakardade horretan apustu pertsonalak huts egin eta bere inguruan ezer aurkitu ez duelako. Nik ere Bizkaiko Txapelketan sekulako ostia jaso, eta hamabost egun eman nituen bertsotan egiteko gogorik gabe (eta niretzat hori desio sexuala galtzearen moduko tragedia da), baina heltzen zara bertso eskolara, bazoaz tabernara, eta tragoaren ostean batek ateratzen dizu irribarre bat bere bertsorekin eta panba, pasatu da txakalaldia. Nahiz eta badakizun bertsogintza bakarkako lana dela. Gaira itzuliz: txapelketak egiteko arrazoi positiboak mila dira. Baina ez bakarrik Bertsozale Elkartearen ikuspegitik. Euskaltzale eta abertzale bezala, nire esku balego txapelketa egin bai edo ez, gaur nire erantzuna da “bai”. Bai, ze euskal kultura dago dagoen egoeran. Gaur egun jende askok eta askok begiratzen digu bandera gisa. Eta eskerak BEC dagoen hor.

Beraz, Euskaltzaindiaren garaian bezala, bertsolariak erabili behar dira beste helburu batzuetarako?

F. PAIA. Noski. Artearen, bertsogintzaren ikuspegitik txapelketak ez dauka ez hanka ez bururik... baina ikuspegi sozial eta politikotik txapelketak jarraitzen du betetzen sortu zenean zituen helburuak: euskal kultura bultzatzeko, eta neurri batean euskal abertzaletasuna bultzatzeko. “Euskal Herria libro da, ez da baina izango da” bertsorekin 14.000 pertsona nola jarri ziren ikustea, eta beste gauza asko eta asko, eta oilo ipurdi eta sentimendu horiek ez ziren gertatuko presentzia soziala debekatuta eta gauza asko publikoki esatea debekatuta ez baleude. Katarsi politiko kolektibo bat izan zen. Horrek badakar beste arazo bat: Athleticen Errege Kopako finalarekin konparatzen dut. “Ze ederra izan zen, ze hunkigarria...” baina nire lagun futbolzaleak komentatzen zebiltzan “4-4-2” ongi zegoen ala ez, ea zelai erditik defentsara distantzia handiegiak egon ote ziren... hori guk bertsotan ezin dugu egin. Bertsolari finalari buruzko artikulua guztiek zeri buruz hitz egiten dute? Valentzian futbol partidaren bueltan eratu zen jaiari buruz! Futbolari buruz? Zero. Nik bertsolari moduan hori salatzen dut: konforme, tresna sozial eta politiko moduan, bertsolari txapelketa behar du herri honek. Gure kultura batez ere kultura infantila da. Gure udako kanta eskolaurreko material didaktikoa da. Argitaratzen diren lau liburutatik hiru umeentzako dira. Idazle gehiago dauzkagu irakurleak baino eta gure idazleak zer edo zer dira gazte-leraz saltzen badute eta espainiarrek esaten badute onak direla. Egoera kezkarria da, eta testuinguru horretan, bertsolari txapelketa egin egin behar da. Eta 14.000 beharrean 250.000 ikusle lortzen baditugu, hobe. Herri ekintza bat da, politiko eta soziala. Txapelketa egin behar da, eta aurkezten ez banaiz ere antolakuntzan parte hartuko dut. Baina ez dezagun hori bertsolaritzarekin nahastu.

I. ANSA. Hik ez huen finalari buruzko nire artikulua irakurri, orduan. Eta artikuluen hasieran horixe nioen: txapelketari zentzua ematen dioten bakarrak hain zuzen bertsolaritza gainditzan duten gauzak direla. Gure bertsolari izateaz

kontzientzia pixka bat gehiago izango bagenu, benetan gaizki sentitu beharko ginatke horrelako inguruneetan. Sormenari eta aniztasunari egiten zaion atentatu masiboa da. Bertsoa espektakulu bihurtzea, merkatuak dituen hainbeste balio ere barneratzen dituen... Azken txapelketan, egia esan, une askotan gaizki sentitu nintzen publiko artetik zirkuari begira.

F. PAIA. Populismo handia zegoen.

I. ANSA. Zer txalotzen den ikusita, ikuspuntu kritikoa pixka bat landuz gero... Niretzat horregatik da garrantzitsua bertsokeraren kontua, norberaren eredia sortzea... zeren hori lantzen dugun neurrian naturalki lantzen dugu zirku horren kontra doan jarrera. Norberak bere bertsokera lantzen duenean eta bertsokera horrekiko koherentea den neurrian talka egingo du ezinbestean artistikoki zentzurik ez duen sistema oso batekin. Musikan bere bidea garatu nahi duen musikari batek musika merkatuarekin talka egiten duen bezalaxe. Horregatik da bertsokera aldaketaren klabea.

Aldaketa horren klabeak azaldu lasai.

I. ANSA. Aldaketa eman daiteke barrutik edo kanpotik. Nik gehiago ikusten dut aldaketa sistemaz kanpotik emango dela, kanpotik egiten denaren arabera aldatuko dela alegia.

F. PAIA. Bai, baina gauza bat oso kontuan izan behar dugu. Aurrekoan Beñat Gaztelumendi entzun niona gustatu zitzaidan ikaragarri: berak eta bere anaia Unaik bertso saio kopuru bera egiten dute urtean zehar. Eta bere anaiari behin eta berriz galdetzen diote kalean ea bertsoa utzi ote duen. Gogorrena hori da. Sistemak sinetsarazi dio gizarteari fokutik kanpo ez dagoela ezer ere!

I. ANSA. Baina zer klabetan?

F. PAIA. Mediatikoki, onarpen mailan... kanpotik bidea egin nahi duenak behin eta berriz

“**B**ertsozaletasunaz egindako azken inkesta soziologikoan (2006)

ikusitua genuen: jendea iri galdetu ‘nor da zuretzat bertsolaririk onena?’ eta erantzunetan 100 izen agertu ziren. Hori da txapelketak orain arte apurtu ezin izan duen errealitatea. Gaur egun ari da lortzen aniztasun hori apurtzea”

FREDI PAIA

erantzun beharko dio “Bertsolaritza utzi al dink?” galderari. Diskurtsoa hori delako. Niri behin bertsolari “handi” batek esan zidan: “Bai, hik saio asko egiten dituk, baina denak gaztetxetan!”. Eta hori zer da bada, txungo pastel?

I. ANSA. Hori gogorra da, hik balio sistema oso bat barneratu dualako, hik jada ideologikoki hori onartzen dualako. Mediatikotasuna oso krudela duk, derrigor gutxiengo bati lotzen zaio. Hori gainditzea duk kontua. Hori gainditu gabe duk Aspe eta Asegarre eratu nahi izatea: biak helburu bera eta biak kontu berarekin.

F. PAIA. Guztiz konforme. Hori da niretzat Hamaika bertute. Pilotarekiko ezberdintasuna da Elkartek guztion izenean aritzearen truke lortzen dituela gutxi batzuen onurarako, eta lurralde eremu oso txikian inbertitzeko (Gipuzkoako zati bat) baliabideak. Jendeak gure lanaren berri izatea da mediatikotasuna, aniztasunari aukera erreal bat emateko modu bakarra. Eta orduan nire galdera da: Nik zer arraio pintatzen dut Elkartean? Elkartearen apustua beste bat da, beste bide batetik doa eta gainera ez du ezta Atzerri Ministeriorik ere esateko: “Hara, zuek zarete ilunpetako biztanleak”.

“**B**ertsolaritzaz ari garenean
zertaz ari gara?
Komunikazioaz?

Sorkuntza artistikoaz? Zeren
komunikazioaz ari bagara ‘on’ horren
balorazioa zuzen-zuzenean
testuinguruarekin eta momentuarekin
lotutako gauza da: ‘Ona’ da momentu
bakoitzean komunikazio hori
funtzionarazten duena. Baina bertsolari
bera testuinguru eta momentu
desberdinetan izan daiteke oso ona edo oso
txarra. Beraz, komunikazioaz ari bagara
ezin gaitezke on eta txar sailkapenetara
jolastu. Sorkuntza artistikoaz ari bagara, ufl
ba oraindik gutxiago!”

OIER ARAOLAZA

I. ANSA. Horregatik esan dut kanpokoak eragingo diola barrukoari, hori garatzen den neurrian. Sistema onenen eta gutxiengo baten inguruan oinarritzen da. Sistema aldatuko balitz, ez genuke hortik kanpo ezer sortzen aritu beharko. Elkartetik kanpo ari dira gauzak sortzen, eta gero eta gehiago sortuko dira.

F. PAIA. Nik hor sartzen ditut bertso eskolak, eskualdeetako bertsozale elkarteak. Nik uste dut bertso eskolen garapena gero eta handiagoa izango dela.

I. ANSA. Aurrera begira bi eremu ikusten ditut: batetik bertsolaritza lan artistiko gisa garatuko dela. Eta horretarako klabeak dira bertsolariak berak eta kritikariak. Kritikarien figura beha-

rezkoa da, bertsolaritzaren teoria bat behar dugu, ikerketa zientifikoetan oinarritutakoa. Kritika literario serioa behar dugu, ez txapelketan bat-batean 5 edo 6 puntuatzea.

F. PAIA. Hori ez duzu lotua ikusten epailearen autoritate eta profesionaltzearekin?

I. ANSA. Nik ez diot epaile bati autoritate hori ematen. Ezin dut onartu jarduera artistikoa zenbakitan oinarritzea. Zineman izarrak jartzen zaizkio filmari, baina zine kritikak eta zinemagileek ez dute serio hartzen hori. Hori parafernalia bat da, alde komertziala. Txapelketa ez dudanez artearen ikuspegitik baloratzen, bada kasik nahiago dut epaimahai popular bat, denen gaintetik jarriko den norbait baino.

Aipatu dut aurrera begira batetik sorkuntza lana prestigiatzearen bidea ikusten dudala. Eta bestetik, bertsolaritza kultur mugimenduan oinarritzea, alegia, sistema ekonomiko eta politikoa beste bat izatea, bertso eskoletan gehiago oinarrituko dena.

O. ARAOLAZA. Aldaketaren oinarria haustura da: Arrakastaren kontzeptuaren inguruko kontsentsua haustea. Hori da klabea. Arrakasta identifikatu daiteke kuantitatiboki, zenbat eta gehiago hobe bai ekonomikoki, publikoki, mediatikoki, bertsolari kopuruz... Baina arrakasta definitu dezakegu beste mila modutan. Bakoitzak bere herrian ekintza komunikatibo egokiak bideratzen baditu bertsotan, hori baino arrakasta handiagorik ez dago pertsona eta inguru horrentzat. Hori ere izan daiteke arrakastaren eredu ideala. Mañukortak baino arrakasta handiagorik auzoz auzoko bere ibilbidean, nekez aurkituko du inork. Eta agian Mañukortarentzat txapelketan ez baloratua sentitzea ez da frakaso. Zeren bere arrakastaren esparrua beste bat da. Ez dauka txapelketaren beharrik ezertarako. Bertsogintzak une honetan arrakastatzat du gizartean ere presentzia handia izatea. BECeko betekada hori arrakasta da? Edo interesatzen ez zaigun bide batean jarri gara?

F. PAIA. Bakoitzak aztertu beharko du zer bidek asebetetzen duen eta zer bidek ez. Baina ez dugu ahaztu behar mezua bat zabaltzen dugula gizartean. Bertso eskolako irakasle moduan aldaketa handia ikusi dut hamar urtean. Eta da BEC, eta da txapelketa, eta txapelketa, eta txapelketa. Garai batean ikasleek bertsoei buruz hitz egiten zizuten “bertso hau gustatu zait eta beste hau ez”. Gaur egun ikasleek bertsolariei buruz hitz egiten dute. Joko bikoitza da hori: bakoitzak egin dezala nahi duena eta pentsa dezala nahi duena, dio sistemak. Bale. Baina badira politika batzuk ondorio batzuk dakartzatenak eta guztion izenean egiten direnak.


Begira, txapelketa egin egingo da, bertsolaritzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, historia guztian izan den bezala. Egingo denez, ahalegindu gaitezen kalitate handienekoa izan dadin bere esparru guztietan. Eta justu klabea den esparrua ezin dugu umezurtz utzi! Ansa, zuk esan duzun ikuspegiaren arabera, kritikariari ematen diozu epaileak egin beharko lukeen funtzioa. Orduan, sar daitezela kritikariak epaile edo epaileak kritikari. Baina biak baditugu, epaileak zer dira, txotxongilo batzuk? eta kritikariak zertarako daude “hau dena fartsa bat da! eta nik esango dizuet nondik doan kontua....” esateko?

O. ARAOLAZA. Niri gertatzen zait kontraesan hori: Onartu behar dut txapelketa egingo dela. Orduan, nolakoa nahiko nuke? Beti pentsatzen dut: “Balorazio irizpideak ahalik eta zabalenak dituen”. Ba justu hori da edozein txapelketa hondoratzeko modurik onena. Zeren teknika-ekin, matematikarekin, denok amen egiten dugu. Baina hasten garenean beste dimentsioak kontuan hartzen, demasak gerta daitezke, esaterako audientzia osoa epaimahaiak erabakitakoaren kontra egotea. Horregatik dira txapelketak zentzugabekoak. Egun batean Mañu-korta txapeldun izendatzen badute, akabo!

F. PAIA. Bai zera! Oso diziplinatuak gara. Bizkaian 2004an gauza larriak gertatu ziren arren,

“**B**i bide bakarrik daude: edo txapelketa edo autogestioa. Baina gaur Elkartek txapelketa bat antolatzen badu, ez dago Euskal Herrian bertsoarekin lotutako beste ezer horren itzalaren laurdena duen alternatiba bat eraiki dezakeenik, baliabideak banatzeko moduaren ondorioz. Eta gainera autogestioari zer diskurtso egiten zaio? Jasotzen den mezua mespretxua eta egurra dira”

FREDI PAIA



oraindik argitu bakoak, denok onartzen dugu epaia, nahiz eta ez ulertu epaileek esaten dutena.

O. ARAOLAZA. Bai, niri arreta piztu izan dit horrek, bertsolariak sistemarekin zer txintxoak zireten.

EGITARAUA

OTSAILAK 26 (Larunbata)

Sarako Lur berri aretoan, 18:00etan:

- Eric Dicharry: *Bertsolaritza eta umorea*
- Andoni Egaña: *Nola gainditzen dira inertzia ideologikoak? Zenbateraino obligatzen dute?*
- Amaia Vazquez: *Inprobisazioaren gozamina: oholtzako bertsolaria nola askatu proiektzioetatik eta unean unekoa gozatu.*

20:30ean BERTSO-AFARI ESPERIMENTALA

Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano eta Miren Amuriza.
Gai-jartzaile: Andoni Egaña.

AFARIRAKO ERRESERBAK:

(0033)559542758 edo (0033)673900352

MARTXOAK 1 (asteartea)

Gasteizko Amaia Zentroan, 18:00etan:

- Oier Araolaza: *Txapelketaren kontra*
- Fredi Paia: *Zelan eragiten dio txapelketak sormenari? Epaileak kalitate ziurtagiri?*

MARTXOAK 4 (Ostirala)

Iruñean, Hizkuntza Eskolan (Kaldereria 11), 18:00etan:

- Jon Martin eta Estitxu Eizagirre: *Zer ikasi behar da bertso eskoletan? zer desikasi?*
- Jon Ansa: *Bertsokera(k) eta sistema(k).*

MARTXOAK 10 (Osteguna)

Durangoko Kafe antzokian, 18:00etan:

- Egoitz Aizpuru: *Gai-jartzailea emagin? Zenbateraino markatzen du gaiaren ikuspegiak eta tonuak ondorengo bertsoaldia?*
- Ibon Arrizabalaga: *Gorbata ala amantala erantzita... andre-gizonak bertsotan biluzik?*

20:30ean BERTSO-SAIO ESPERIMENTALA

Jon Maia, Iker Zubeldia, Onintza Enbeita eta Ainhoa Agirreazaldegi.
Gai-jartzaile: Egoitz Aizpuru.



inertziak erantzi, garena jantzi

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak antolatuta

MARTXOAK 12 (Larunbata)

BATERATZEA

Villabonako Gurea antzokian:

9:30-13:30 Hitzaldi denen azalpen laburtua eta eztabaida irekia.

14:00-16:30 Bazkaria Behar zana Elkartean.

17:00-19:00 BERTSO SAIO ESPERIMENTALA

Imanol Lazkano, Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus, Jone Uria, Uxue Alberdi, Julio Soto eta Unai Iturriaga. Gai-jartzaileak: Andoni Egaña eta Egoitz Aizpuru.

BAZKARIRAKO ERRESERBAK

(martxoaren 3a baino lehen):

(0034) 943 694 129 edo

a.irastorza@bertsozale.com

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefona:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.266. zenbakiarekin banatua, 2011ko otsailaren 27an)